




9 EGUZKI

Ekintza Artistikoen Zikloa

NAFARROAKO MUSEOAREN BEHATOKIA

KOMISARIOTZA: ALEXANDRA BAURÈS

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

2016

MUSEO

Uda honetan, beroa arindu eta eguzkiaren argia leuntzen denean, Nafarroako Museoak bere Behatokiaren ateak irekiko ditu, hiriari irekita dagoen terraza handi bat, 9 EGUZKI zikloa ospatzeko. Bederatzi asteazken izango dira uztailaren 15 eta irailaren 9aren artean, bederatzi topaketa egungo artearekin. Hitzordua presentziala izango da, aurrez aurrekoa. Saio bakoitzak ekintza artistiko bat proposatuko du, hau da, zuzeneko esperientzia bat, denbora errealean, artisten eta publikoaren artean partekatua, emozio eta ideien fluxua ekarriko duena. Artea komunikatiboa baita -kutsatzen du- eta biltzen baitu. Parte hartzen duten artistek haien diziplinaren mugekin esperimentatuko dute -marrazkia, gorputza, ahotsa, soinua, testua edo irudia-, publikoak dituen pertzepzioen espektroa areagotze aldera. Behatokiaren ingurunean, lagun-kopuru mugatuak ahalbidetzen duen hurbiltasunarekin eta distantzia- zein higie-neurriak zainduz, baldintza bereziak emango dira haien lana ezagutzeko. Entzun, behatu, gozatu eta solasteko tarte bat izango da. Gainera, freskagarriak eta mokaduak banatuko dira, ahogozoaren plazera alde batera ez uzteko.

Ordutegiak: Behatokia eta taberna irekitzea 19:00etatik 21:30era. Ekintza artistikoa 20:00etatik 21:00 g.g.b. Lagun-kopurua: 60 pertsona Behatokian eta 40 pertsona Hallean (euria eginez gero).

Sarreraren prezioa: 5 € kontsumizio baterako eskubidearekin. Museoaren txarteldegian salduko dira saio bakoitzaren bezperan eta egun horretan bertan. Ezingo da erreserbarik egin ez telefonoz ez emailaz. Uztailaren 14ean ziklo osorako 20 abonamendu salmentan jarriko dira 45 euroan.

Taberna eta pintxoaren zerbitzua **Bang Bang**-en esku.
Kordinazio teknikoa eta irudia: **Ana García**.
Bideoak: **The visible man**.

PROGRAMA

UZTAILAK 15 **LEIRE URBELTZ & DJ ´LA MANI-LA**

UZTAILAK 22 **ZARYS FALCÓN & KATANGA PROJECT**

UZTAILAK 29 **GHISLAINE VERANO**

ABUZTUAK 5 **J'AIME**

ABUZTUAK 12 **PERU GALBETE**

ABUZTUAK 19 **LED SILHOUETTE**

ABUZTUAK 26 **ITXASO MARKIEGI**

IRAILAK 2 **ITSASO IRIBARREN & GERMAN DE LA RIVA**

IRAILAK 9 **Txo!? & XABIER ERKIZIA**



UZTAILAK 15 LEIRE URBELTZ & DJ 'LA MANI-LA

Ninfeos (fuentes rituales), ilustrazio hedatua

Ba al zenekien Iruñeak ninfeo erromatar bat (ninfak gurtzeko toki akuatikoa) izan zuela? Haren hondakinak Iruñeko katedralaren azpian daude, Nafarroako Museotik ehun bat metrotara. Behatokian egingo duen esku-hartzean, **Leire Urbeltz** ilustratzaileak aipatu ninfeoa antzeko toki batekin lotuko du, *jjimjilbang* edo bainuen etxe batekin, 2018an Jeju irlan ezagutu zuena, Koreako itsasartean. Bere helburua iturri horien inguruan zeuden emakumeen komunitatearekin interesatzea da, bai egungo Hego Korean bai Pompaelo zaharrean. Uztailaren 15eko arratsaldean bere marrazkia zabalduko du Museoaren Behatokiaren beiratean, eraikinaren eskalara egokituz. **DJ'la Mani-laren** musikaren erritmoan egingo du, *Rock-calipso-love-roll* saio bat eskainiko baitu.



UZTAILAK 22 ZARYS FALCÓN & KATANGA PROJECT

Voces errantes, ahozko performancea

Zarys Falcón bere sorterritik, Kolonbiatik, iritsi zen Iruñera duela urtebete. Antzinako sustraiak dituzten erritmo afrokaribear kolonbiarrak ekarri zituen berekin, baita emakume migratzaileen narrazioak ere. 9 Eguzki zikloan aurkeztuko duen ahots eta mugimenduzko obra performatiboa ondare horretaz elikatzen da, eta, aldi berean, hizkuntza estetiko garaikide batzuez parte hartzen du. Lan melodikoa zabaltzen joango da eta **Galina Rodriguez** dantzariaren mugimenduarekin bat egingo du, elkarrekin gurutzatzen diren bi istorio bailiran. Bere *Pied sur terre* lanaren ondoren -Zarys Falconek Parisko Pompidou Zentroan agertu zuena-, bere asmoa migrazioa bizitzean gertatzen diren eraldaketa-prozesuak mahaigaineratzea da.



UZTAILAK 29 GHISLAINE VERANO

Mirador de realidad, gorputzaren performancea

Gorputzei arreta eskaintzea lehentasun intimo eta kolektiboa izan da azken aste eta hilabeteotan. **Ghislaine Verano** artistarentzat, dantzari zein sortzaile den aldetik, hori esperimendatzeko esparru bat da duela urte batzuk. Museoaren Behatokian egingo den jarduketak gorputzetan jarriko du fokua. Berak honela definitzen ditu: "materia gogor eta bigunez beteak, bizitza bera bezala, hitzez, bizipenez eta eraginez beteak". Bere ustez, gorputzek "gure ni egiazko eta distiratsua" dute. Bizipen partekatua proposatuko du, errespetuan eta inklusioan oinarrituta. Saioa gorrentzat eta itsuentzat irisgarria izango da.



ABUZTUAK 5 J'AIME

Love and Squalor, kontzertu elektroakustikoa

9 Eguzki zikloan, **Jaime Cristóbal** -J'aime- artistak Love albumaren alderik intimoena arakatuko du *Squalor* obran, bi gitarra, omnichord bat eta erritmo-kaxa baten laguntzarekin. 2020an, bakarkako disko bat argitaratu zuen, country-rocketik synth-pop-era doazen estiloak dituzten 12 abestiz osatutako bilduma, bere crooner izaera berezia alde batera utzi gabe. Hogei urtez Souvenir pop-duoa gisako proiektu kolektiboetan aritu ondoren, Jaime Cristobalek kutsu biografikoa duen lan bat konposatu du. Kritikak honako hau idatzi du: "poparen historia osoa kondentsatzen du, beroa eta kontsolagarria" (Efeeme); "maitasunaren argi-ilunak islatzen ditu, doilorkerian erori gabe" (Rockdelux).



ABUZTUAK 12 PERU GALBETE

La voz presa, performance bokal eta musicala

Peru Galbetek Museoko Behatokitako egin duen proposamena konfinamenduaren bizipenaz elikatzen da. Geldiarazten duen beldurraren bizipena, izatea inbaditzen duena eta ahotsik gabe uzten duena sorkuntzarako erronka bihurtu zen. Helburua, orduan, ahotsa berreskuratzea, goratzea eta bizitzara itzultzea da. Bere azken lanetan Peru Galbete proiektzio bisualetan oinarritu bada ere edo beste musikari batzuen laguntza bilatu badu ere, pieza honetan bakarrik aritzea eta ahotsa biluztea erabaki du. *La voz presa* lanean, ahotsarekin esperimentatuko du lehengai gisa, soinu-geruzak sortuz, *loop* makina baten teknologiarekin nahastuz eta hura zabalduz emozioetan sakontzeko.



ABUZTUAK 19 LED SILHOUETTE

Bonus track, dantza garaikidea

Led Silhouetten pieza hau, 9 Eguzki zikloarentzat propio sortua, gorputzak Arte Ederretan duen paperari buruz konpainia denbora batez egiten ari den ikerketaren hariari jarraitzen dio. Dokumentazio lan honen ondorioz, 2019an *Cóncavo Convexo* sortu zen, espazioarekiko gorputz-harremana aztertzen zuen ikuskizuna. Oraingo honetan, Nafarroako Museoaren ingurunean kokatzean, *Bonus Track* taldearen bost interpreteek -Marina Fullana, Katalin Arana, Laura Lliteras, Martxel Rodríguez eta Jon Lopez- gorputzaren ikuspegi piktoriko-eskultoriko hau mugimenduan jarriko dute. Emozio estetikoak, gozamen-sentsazioa eta are klimax-sentsazioa ebokatuko dituzte, gazte batek azken abesti gehigarri hori entzutean senti dezakeena.



ABUZTUAK 26 ITXASO MARKIEGI

Irla, gorputz-performancea

2019an Londresko Goldsmiths Unibertsitatean Performance Making Masterra amaitu ondoren, **Itxaso Markiegik** *Tricofilia* proiektua hasi zuen (ile-desira hitzez hitz). Ileari erreparatu zion, kanpoaldearekin muga egiten duen eta seinale kultural eta identitario gisa ere balio duen giza gorputzaren atal horri. Museoko Behatokian egingo duen gorputz-ekintza gogoeta hauez elikatuko da. Bestalde, Itxasok bere beste kezka bat praktikara eramango du: espazioa egokitzea ikusleen sentsibilitatea pizteko. Arreta bereziz tratatuko ditu mugikortasun urriko edo ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak.



IRAILAK 2 ITSASO IRIBARREN & GERMÁN DE LA RIVA

Baila, escucha, contempla: testu-eta mugimendu-performancea

Hamabost urte dira **Itsaso Iribarren & German de la Riva** elkarrekin lanean ari direla, eta hainbat diziplinen artean aritzen dira beti. 9 Eguzki zikloan, testuak eta keinuak partekatuko dituzte publikoarekin, guztiak ikerketa artistikoaren xedearekin lotuak: giza gorputza. Gorputz "kodetua" deitzen diote arau, ohitura eta jarraibideen mende dagoenari, presio horiei erantzuten dien gorputz "zatikatuaren" aurkaritzan. Ekintza diskoteka isilaren sistemaren bidez egingo da, entzute aktiboa sustatzen baitu. Iraganean ibilaldi gidatueta erabili izan dute, baina oraingoan, bidaia geldia izango da.



IRAILAK 9 TXO!? & XABIER ERKIZIA

Sobre la intimidación de las máquinas, performance soinu-duna eta bisuala

Bi artista eta ikertzaile, **Martin Etxauri Sainz de Murieta** aka **Txo!?** (ikus-entzunezkoa eta baliabide berriak) eta **Xabier Erkizia** (soinu-arte eta entzutearen kultura), Museoko Behatokian elkartuko dira zuzeneko obra bat sortzeko. Egingo duten esku-hartzerako aukeratu duten arloa makinaren bizitza sekretua da. Baliteke makina eta giza gorputzen arteko alderaketa saihestezina izatea lehenengo funtzionamendua ulertu eta autonomia irudikatzeko. Artisten esanetan, "gorputz mekaniko horiek ere izerdi egiten dutela onartu dugu, elektromagnetikoki bada ere". "Makinaren barne-bizitza hori entzungarri eta ikusgarri egitea, eta haien xuxurla eta aieneen barru-barrukoa argi-itzal bihurtzea" bilatuko dute.